

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Behin betiko onespenera ematea azterketa eskubideen tasa arautzen duen zerga ordenantzari

Aiarako Kuadrillak, 2022ko azaroaren 28an, hasierako onespenera eman zion azterketa eskubideen tasa arautzen duen zerga ordenantzari.

Hasierako onespeneraren iragarkia 2022ko abenduaren 9ko ALHAOn (141 zenbakia) argitaratu zen. Jendaurrean jartzeko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan eta aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, osorik argitaratzen da onetsitako ordenantzaren testua, behin betiko bihurtu dena indarrean jartzeko.

Arespalditza, 2023ko urtarrilaren 12a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA

AZTERKETA ESKUBIDEEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

I. Oinarriak eta izaera

1. artikulua

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren babesean, Aiarako Kuadrillak azterketa eskubideen tasa ezartzen du, eta zerga ordenantza honek arautuko du.

II. Zerga egitatea

2. artikulua

Honakoek osatuko dute tasaren zerga egitatea:

a) Funtzionario edo lan kontratuko langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizio libre edo murriztuetan parte hartzeko eskaeren tasa, Aiarako Kuadrillak egiten badu deialdia.

b) Aiarako Kuadrillak deitutako hautaketa prozesuetara hautagai gisa aurkezteko eskaera, betiere kontratazio zerrendak sortzen badituzte, zuzeneko deialdien bidez egiten badira eta gutxienez ariketa bat egitea eskatzen badute.

III. Subjektu pasiboa

3. artikulua

Honako hauek dira subjektu pasibo zergadunak: lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketa-tara hautagai aurkezten diren pertsona fisikoak, deialdiak libreak, mugatuak edo iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenekoak izan, eta kontratazio zerrendak sortzen dituzten hautaketa prozesuetara aurkezten direnak, baldin eta Aiarako Kuadrillak deitzen baditu funtzionario edo lan kontratudun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko.

IV. Zerga kuota

4. artikulua

Oposiziogile, lehiatzaile edo hautagai bakoitzak ordaindu beharreko kuotak bete beharreko plazari dagokion taldearen eta lanpostuak betetzeko erabilitako sistemaren arabera zehazten dira, honako eskala honen arabera.

A) Lehiaketa bidez bete beharreko lan eskaintza publikoa.

TALDEA	2022KO KUOTA
A1	31,64 €
A2	27,12 €
C1	23,73 €
C2	21,09 €
E	— Euroak

B) Oposizio-lehiaketa bidez bete beharreko lan eskaintza publikoa.

TALDEA	2022KO KUOTA
A1	54,10 €
A2	46,37 €
C1	40,58 €
C2	36,07 €
E	— Euroak

Aurreko tarifei honako murrizketa hauek aplikatuko zaizkie:

a) Ehuneko 100eko murrizketa izango dute hautaprobek deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean gutxienez sei hilabeteko antzinatasuna duten enplegu eskatzaile gisa agertzen diren pertsonak.

b) Ehuneko 100eko murrizketa izango dute 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa onartuta duten pertsonak, baldin eta minusbaliotasun txandarako plazarik gordeta ez duten deialdietara aurkezten badira.

c) Ehuneko 100eko murrizketa izango dute genero indarkeriaren biktima direnak.

d) Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskabidea aurkezten den egunean kategoria orokorreko familia ugariako kide direla aitortuta dutenek.

e) Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskaera aurkezten den egunean guraso bakarreko familia osatzen duten pertsonak.

Azterketaren kopiak: 8 euro azterketa bakoitzeko, honako hauek barne: galderen koaderno-txoaren kopia, erantzun orriaren kopia eta, hala badagokio, zuzenketa irizpide orokorrak edo erantzun zuzenen txantiloia.

Akten ziurtagiriak: 8 euro ziurtagiri bakoitzeko. Ziurtagiriak banakakoak izango dira beti.

V. Likidazioa eta dirua sartzea

5. artikulua

Lortu nahi den plaza bakoitzeko tasa nominala eta banakakoa ordainketa aginduaren bidez ordainduko da. Agindu hori eskaera aurkeztean emango da, kuadrillak zehazten duen kontu zenbakian. Transferentzian interesdunaren izena eta lortu nahi den plazaren izena jasoko dira. Izangaiak ordainketa frogagiria gorde beharko du.

Ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko administrazio jarduera subjektu pasiboari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ematen ez denean.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ordenantza honetan aipatzen den administrazio jarduera egiten ez denean edo behar ez bezala egiten denean, subjektu pasiboak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango du.

Xedapen gehigarria

Zerga ordenantza honen arauak, arrazoi sistematikoak direla medio, indarrean dagoen legeriaren eta hori garatzeko beste arau batzuen alderdiak kopiatzen badituzte, automatikoki aldatuko edo ordeztuko dira eratorzen diren legezko arauen aldaketa kopiatzen denean.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau behin betiko erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean eta haren indarraldiak aldatu edo berariaz indargabetu arte iraungo du.